

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Bezeroek gure enpresaren berri izango dute iragarkien bitartez, telebistan eta sare sozialetan (instagram, twitter, facebook, tiktok) egongo direnak. Iragarki hauetan, gure produktuen aurreikuspen bat agertuko da, bezeroak gure produktuen nondik norakoa zein den ikus ahal izateko, horretaz aparte, gure web orriaren eta instagram kontuaren helbideak agertuko dira, gure produktuek atentzioa deitu badiete, informazio gehiago eskuratu ahal izateko.



Web orrian, gure produktuei buruzko informazio sakonagoa egongo da, adibidez, produktuen zenbat modelo ezberdin eskeintzen ditugun, nola funtzionatzen diren, hauen xehetasun zehatzagoak, prezioak... Gainera, produktuak web orrian bertan erosteko aukera ere egongo da.

Hasiera batean langile gutxi batzuk bakarrik eukiko ditugu, *chip*-ak erosiko ditugulako eta produktuak bakarrik muntatu eta bidali beharko ditugulako. Garbitzaile bat, *chip*-ak muntatzeko eta apaintzeko langile bat, informatikari bat *chip*-ak app-arekin konektatzeko, pertsona bat *marketing* alorrean aritzeko, beste bat kontuak egiteko eta beste langile bat kordinazioaz arduratzeko. Bestalde, produktua paketatzearen eta bidaltzearen lana, lau bazkiden artean hartuko dugu, astean bitan. Guztira 6 langile kontratatuko genituzke.



Gure enpresan, nahiz eta produktuak banaka erosi daitezken, pack batzuk prestatuak ditugu eta bezeroek pack hauek erosten badituzte pack-ean dauden produktuak banaka erosten balituzte baino merkeagoa aterako litzaie, pack hauek deskontu bat dutelako. Gainera, hasiera batean, bezeroek gure produktuak ezagutzen ez dituztenez, erosketari errazteko ere proposatzen dugu ideia hau, izan ere, pack hauek proposatzean, gure produktu guztiak probatu ditzazkete, aukeratzeko presiorik gabe.